




Ipes	35
Keinu	38-39
Maiatz	28
Pamiela	18-22
Saure	32
Sendoa	4-5
Susa	14-17
Trikitia Elkartea	2
Txertoa	9-10

GOIKOKALE	
Aek-Aizul	1
Amnistiaren Aldeko Batzordea	13
Argia	2-3
Artez	10-11
Eguzki	14
Entzun	7
Euskal Herrian Euskaraz	12
Euskaldunon Egunkaria	20-22
Gara	16-17
Gaztetxulo	6
IKA	19
Lemuria	15
Nabarrerria	4
Ostiela	5
Putz	9
Tmeo	8
Zenbat Gara	18

KALEBARRIA

Agorila	38-39
Aus-Art	1
Aus-Art / Duo Seraphin	2
DDT / Likiniano	12
Elkarlanean Diskak	23-32
Etxe-Ordo	4-5
Gaztelupeko Hotsak	13-15
Gor	16-19
Hilargi	3
IZ	40-43
Juan Karlos Irizar	37
Metak	8-11
Napartheid	6
Oihuka	20-22
Takolo, Pirritx eta Porrotx	36
The balde	7
Zabaltzen Diskak	33-35

GUNE ELEKTRONIKOA

Elhuyar	4
Ena	1
Euskaltel	2
Euskaltzaindia	5
Eusko Jaurilaritza-Habernet	11
Gipuzkoako Foru Aldundia	6
UEU / Datu baseak	8
Urtxintxa Eskola-Gipuzkoa	9
www.durangokoazoka.com	3
www.eusko-ikaskuntza.com	7
Zuhar.com	10

IRITZIA

Aitzpea Azkorbebeitia ■ IRAKASLEA

Galderak eta galderak

Inguruan badut egunean hogeita hiru orduz «zergatik?» eta «zertarako?» galdezka dabilkidan ume bat. Eta askotan ez dut berarentzat erantzunik izaten.

Durangoko Azoka dela-eta, «zertarako?» galdeztzen badidazue ere, ez dakit erantzunik ba ote dudan. Euskal musika eta literatur produkzioaren eskaintza plazaratzeko, agian? Agian bai, baina zein produkzio? Izen handiek txikiak jaten dituzte eta, ondorioz, nik neuk nekez entzuten dut produkzio horren zati handi baten oihartzunik (egia da apur bat gorra bainaizela).

Bestalde, eta azken urteotan argitaletxe gehienek euren stand-etan liburu berriei eskainitako lekua gero eta zabalagoa izanda, produkzioaren beste zati handi bat ia ikusezin bihurtu da (edo bihurtu zait, nahiz eta hemen gorra ez ezik apur bat hipermetropea ere bainaizela onartu behar dizuedan). Ez dakit, baina nago Azokak lehen eskaini ohi zituen *perla zaharrak* aurkitzeko aukera ez ote den galtzen ari.

Gainera, nobedadeen aldeko apustu horrek liburu bizi-itxaropena laburtu du, gaurko nobedadeak atzo bertakoa zahar bihurtu baitu. Badirudi azkartu egin dela denboraren joatea, bart berria zena jada ez da berria gaur. Azkenerrako —bazioen Joseba Sarrio-

nandiak *merkatuaz* ari zela *Hitzen ondoeza* bilduman — barazki batena lakoa da liburu baten bizi-esperantza: «liburu azokak ugaltu zirenetik, liburuak ere produkto galkorrak dira. Liburu baten bizi esperantza, guti gorabehera, barazki batena lakoa da».

Azoka merkatu bihurtuta, irakurleok erosle huts izatearekin konformatu beharko dugu. Edo ez: umeak bezain temati jarrita beste zerbait eska dezakegu, hutsuneak betetzera eta bestelako asmoei erantzutera bideratutako azoka bat... Zer-nolako hutsune eta asmoak? Bat baino gehiago bururatzen zait, baina gehiegi ez eskatzeko idazleek eta irakurleok elkarrekin topatzeko espazioa eskaintzearekin konformatuko nintzateke. Topo egitea, alabaina, ez da honako idazleari sinadura eskatzera eta eskakizun horren betetzera mugatzen, ezta halako idazleak, handik goitik, bere azken liburuaren inguruan egindako hitzaldira. Hurbilago sentitu nahi nituzke idazleak, «hezur eta haragizkoagoak», irakurleok honetaz eta hartaz solasean, azokak ondo atondutako txokoetan eroso eseri eta elkarren arteko zubia den liburuaz edo dena delakoaz mintzatzen, patxadaz, kafetxo bat zein ardo bat edan bitarteko astiazgai bai behintzat.

Halakorik bideragarria ote den? Gehiegi eskatzea dela? Agian bai, agian ez.

IRITZIA

Igor Elortza ■ BERTSOLARIA

Jaia, zereginak eta apologia

Ta beste parebat-hiru aste barru *Durengo-ko jaijiek barriro*, entzun nion lehengoan bati, San Faustoetatik irauten ei dion bes-tondoaz ari zela, tabernan. Galanta da gero gurea! Durangoko bi asteburu bizien eta girotsuenek erreinuaren bi ospakizunik handienekin egiten dute bat. Pilarica eta Konstituzioaren zubiekin, hurrenez hurren. Parrandan oso bestelako arrazoiak direla-eta ibiltzen garela pentsatzearekin konformatu beharko dugu. Azken batean, egia ere bada. Liburu eta Disko Azokak egina zuen bere lekua nire gogoan, abenduaren 6a Espainiar Konstituzio eguna dela jakin nuenerako. Azokaren eragin on bat gehiago, orain ere nekez baitut horretaz akordatzeko astirik.

Azoka hurreratu ahala ez da baina jai giroa niri burura etortzen zaidan lehenengo kontua. Nobedadeak eskuratzeko irrikitan nago jadanik. Kulturak ere bai baititu bere betebeharrak, edozein bazterretan ebidentzian nahi ez badu geratu batek. Sarriren *Lagun Izotzua* gabonetarako urturik edukitzea, adibide bat ipintzearen. Hasi ez daitezen edozein bazkari-tan oso-oso ona dela esanez Uria eta txar-txarra dela erantzunez Sandia, eta norbera isilik. Irakurtzen hasita nago baina oraindik ezin dizuet nire iritzia eman, edo antzeko gezur batekin saihestuz kalaka.

Bai, bai, jaun-andereok, eguneraturik bizitzea arras garrantzitsua da, eta eguneratzeak ardurak eta zereginak ditu berarekin. Nik neuk gustuz betetzen

ditudanak, bestalde. Edota betetzen ez ditudanak, bestela.

Hainbesteren artean aukeraketa egitea, hasteko. Euskal letren osasun onaren seinale da, ezbairik gabe, baina begiratu al duzue aurtengo berrien zereginak? Nondik hasi hautatzen? Hautatutako guztiak erosi, bai ala ez? Eta iaztik irakurri gabe ditudanak? Hogeigarren orrialderako maitatuko ez ditudanekin zer egin gero? Oparitu? Ez dago txarto hori ere. Oparia jasoko duenak bazkari bat nahiago izatea oso litekeena da, baina idazle eta editoreek estimatuko didate behintzat. Ez da euskarazkoa merkaturik errazena. Eta erostea ondo dagoela esaten ari naizenez, eskerrak zerrendatik gehien interesatzen zaizkidan diskoak etxean ditudan; horiek ez dute zulo handiagorik egingo nire patikan.

Azoka asteburuan betetzen den zulorik ere bada, orde, nire baitan. Apurka-apurka zerbait handia egiten ari garela irudipena baitaukat, eta aurrez aipaturiko produkzio hori guztia da frogarik hobere-na. Kantitatean eta kalitatean. Eta aurtengo Azokan apologistak, San Martin eta Gandiaga omenduko dituztela aitzakia hartuta, Bitorianoren berba batzuekin amaitu gura dut. Hark dioenez: «Hemen euskaldun izatea bezalako gudaririk ez dago. Hemen euskaraz irakurri eta idaztea bezalako iraultzailerik ez dago. Hemen ez dago euskara adinako desafiorik inperio zurrupariaren aurka. Hemen ez dago euskara adinako askatasunaren aldeko itxarobiderik».

BILBO ZAHARRA
EUSKALTEGIA

Posta kalea, 8 - ☎ 94 415 82 92

J.M.Zabala
Euskaltegia

Gordoniz, 22 - ☎ 94 422 13 88

elkar-lan

Euskara ikasi
eta hobetzeko !!Gabriel Aresti
Euskaltegia

Gran Via, 24 - ☎ 94 423 23 12

VLIBARRI
EUSKALTEGIA

Gardoki, 3 - ☎ 94 416 24 72